

PLAN PREV. EUSKADIKO PENTSIOAK 2040

TXOSTENA LEHEN SEIHILEKOA 2021

Urtearen lehen erdia baikortasunezko giroan igaro da, pandemiaren bilakaeraren hobekuntzari eta bloke ekonomiko nagusietan -batez ere garatuetan- jarduera ekonomikoan izandako susperraldiari esker. Urte osorako eta 2022rako espero diren BPGd-aren zifrek hazkunde-tasa handiak adierazten dituzte, batezbesteko historikoen gainekoak, ekonomia garatu gehienetan eta, neurri txikiagoan bada ere, garatzeko bidean dauden herrialdeetan ere bai. Horietan, hazkunde ekonomikoak oztopo handiagoak ditu, pandemia kontrolatzeko atzerapen eta zailtasun handiagoak direla eta. Bigarren hiru hilabeterik aurrera hasiko da hazkundera, lehenengoan eskasagoak izan baitira datuak. Kontsumitzaileen eta enpresen konfiantzari buruz aurreratutako adierazleak oso maila altuan daude; gainera, enplegua ere bizkor samar berreskuratzen ari da; horrenbestez, kontsumoaren datuak indarrez igotzen ari dira.

Hazkunde ekonomikoaren testuinguru horretan, AEB azpimarratu beharra dago, 2021ean pandemiaren aurreko BPGd-aren maila berreskuratuko baitu. Hala, aurten % 6,5eko hazkundera aurreikusten da AEBn, eta datorren urtean, % 4koa. Eurogunean ere % 4tik gorakoak izango dira hazkunde-tasak 2021ean eta 2022an, eta garatzeko bidean dauden herrialdeetan, % 6tik eta % 5etik gorakoak, hurrenez hurren. Ekonomia suspertu egingo da, beraz, zalantzarik gabe. Orain, inflazioak sorrarazi du beldurra. Izan ere, inflazioari buruzko zifrak nabarmen igo dira, baita banku zentralen helburuetatik gora ere. AEBn, prezio-igoera % 3,8ra helduko da 2021ean, eta % 2tik gora jarraituko du 2022an. Eurogunean, susperraldia motelagoa izaten ari baita, % 2 ingurukoa izango da aurten inflazioa, eta % 1,5 ingurukoa datorren urtean. Duela hilabete batzuk espero zirenak baino askoz tasa handiagoak dira, inondik ere.

Banku zentralen diru-politikek zerikusi zuzena izango dute prezio-igoera horiekin, argi eta garbi. Izan ere, iraganean baino askoz permisiboagoak izaten ari dira orain inflazioarekin, eta halaxe erakutsi dute Europako Banku Zentralak zein Erreserba Federalak. Hortaz, ez da aurreikusten ez aurten ez datorren urtean interbentzio-tasak mugitzea. Hau da, diru-merkatuko interes-tasek minimoetan jarraituko dute, epe laburreko zorraren errentagarritasuna oztopatuz.

Euroguneko gobernuen zorrak gora egin du seihilekoan, batez ere epe luzeeneko tartean. Beraz, merkatuetan espero den inflazio handiagoaren aurreikuspena kapitalizatzen ari dira, aldagai horretara indexatutako bonuetan ikusten denez. Altxorraren zorrak (gure zorroan nagusi denak) oinarritzko 37 puntu egin du gora 10 urterako tartean, eta 12 puntu, 2 urterako tartean.

Kreditu-kalitaterik handieneko eurotako errenta finko korporatiboak zertxobait egin du behera, batik bat gobernu-bonuen errentagarritasunaren igoeraren ondorioz. Bonu horiek gobernu-zorraren aurrean kotizatuzko diferentziala apur bat jaitsi da, eta oso maila txikietan jarraitzen du.

PLANAREN DATU IDENTIFIKATZAILEAK

- . Euskadiko Pentsioak, Borondatezko Giza Aurreikuspen Erakundearen barnean dagoen ekarpen definituko banakako aurreikuspen plana 106-G zenbakiarekin dago inskribatuta Eusko Jaularitzaren Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan, V-20211702 zenbakiko IFZ du eta Arrasateko (Gipuzkoako) Jose María Arizmendiarieta pasealekua, z/g du helbidea.
- . Socio protector-promotor, Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito
- . Entidad depositaria, Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito

PLANAREN PORTAERA

ALDIA	ERRENTAG. GARBIA
1 Seihiilekoa	8,19
2021eko metatua	8,19
2020 Urtea	6,20
Azken 3 Urteak	5,08
Azken 5 Urteak	7,14

DATU OROKORRAK

	EGUNGO SEIHILEKOA	AURREKO SEIHILEKOA
Ondarea	58.024.276,29	50.688.361,55
Partaidetza kopurua	6.325.176,47	5.978.291,05
Likidazio-balioa partaidetzagatik	9.173543	8.478738
	EHUNEKOA	KALKULO OINARRIA
Administrazio gastuak	1,40%	S/Patrimonio
Bitarteko gastuak	0,00%	S/Patrimonio
Errotazio ratioa	-0,06%	S/Patrimonio

MERKATU ARRISKUA

Errenta Finkoaren Iraupena	7,55
Errenta Aldakorraren %	62,73%

ZORROAREN ERAKETA MERKATU BALIOAN

BALIOAREN DESKRIBAPENA	21/06/30EKO BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
ERRENTA FINKOA	20.918.102,80	40,40%
REPO	6.458.727,21	12,47%
BO. ESTADO ESPAÑA 4,90% 400730	7.695.203,35	14,86%
ETF. AMUNDI IEACS UCITS ESG	1.336.620,18	2,58%
ISHARES EUR HY CORP ESG EURA	3.426.796,42	6,62%
ISHARES EUROP CORP ESG	2.000.755,64	3,86%
ERRENTA ALDAKORRA	30.864.191,77	59,60%
AC. ADYEN	294.651,50	0,57%
AC. AHOLD NV	130.539,49	0,25%
AC. AIR LIQUIDE	409.018,20	0,79%
AC. ALLIANZ AG HLDG	511.870,20	0,99%
AC. AMADEUS IT HOLDING	140.825,68	0,27%
AC. ANHEUSER BUSCH INBEV NV	286.719,15	0,55%
AC. ASML NV	1.428.221,00	2,76%
AC. AXA-UAP	283.736,18	0,55%
AC. BANCA INTESA SANPAOLO SPA	211.287,98	0,41%
AC. BANCO SANTANDER	300.759,25	0,58%
AC. BASF	353.859,44	0,68%
AC. BAYER	298.912,77	0,58%
AC. BAYERISCHE MOTOREN WERKE AG	155.310,09	0,30%
AC. BNP PARIBAS	363.534,12	0,70%
AC. CRH PLC	171.657,50	0,33%
AC. DAIMLER AG	355.641,90	0,69%
AC. DANONE	225.012,30	0,43%
AC. DEUTSCHE BOERSE AG	145.875,20	0,28%
AC. DEUTSCHE POST AG	304.638,96	0,59%
AC. DEUTSCHE TELEKOM, A.G.	341.776,66	0,66%
AC. ENEL SPA	358.752,59	0,69%
AC. ENGIE (GDF SUEZ)	106.678,08	0,21%
AC. ENI SPA	134.691,05	0,26%

BALIOAREN DESKRIBAPENA	21/06/30EKO BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
AC. ESSILOR INTERNATIONAL	255.405,24	0,49%
AC. GERMAN LINDE PLC	749.274,65	1,45%
AC. IBERDROLA	386.754,16	0,75%
AC. IFX GY	233.256,54	0,45%
AC. INDITEX	176.596,24	0,34%
AC. INGA-ING GROEP NV	240.546,02	0,46%
AC. KONE OYJ-B	137.393,60	0,27%
AC. LOUIS VUITTON MOET HEN NESSY	1.027.660,20	1,98%
AC. L'OREAL	450.208,40	0,87%
AC. MUENCHENER RUECKVER	175.752,95	0,34%
AC. PERNOD RICARD	175.593,60	0,34%
AC. PHILIPS ELECTRONICS NV	209.952,96	0,41%
AC. PROSUS	186.794,55	0,36%
AC. SANOFI-AVENTIS	557.198,16	1,08%
AC. SAP AG	707.573,36	1,37%
AC. SCHNEIDER ELECTRIC SA	430.811,96	0,83%
AC. SIEMENS	634.427,76	1,23%
AC. TOTAL FINA	579.879,69	1,12%
AC. VINCI	299.846,68	0,58%
AC. VIVENDI	99.381,64	0,19%
AC. VOLKSWAGEN	218.169,60	0,42%
AC. VONOVIA SE	172.828,40	0,33%
ACCIONES ADIDAS	348.742,90	0,67%
ACCIONES KERING	330.913,00	0,64%
ETF. LYXOR ETF S&P500 HDG	719.820,00	1,39%
ETF.INVESCO EURO STOXX 50 UCITS EUR SCOD	1.661.040,00	3,21%
SPDR SP500 HDG EUR	1.615.323,94	3,12%
etf INVESCO S&P 500 HDG	10.769.076,28	20,80%
ZORRO OSOAREN	51.782.294,57	100,00%

TRESNA DERIBATUETAKO POSIZIO IREKIAK

	KONTRATU KOPURUA	MUGAEGUNA	MERKATUA	MERKATU BALIOA	AZPIKOA
FU. EUROSTOXX 50 SEP21	10	17/09/21	EUREX DEUTSCHLAND	405.550,00	DJ EURO STOXX 50
FU. S&P 500 MINI SEP21	29	17/09/21	CHICAGO MERCANTIL EX	5.128.710,52	INDICE S&P 500